



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2009/10 DENBORALDIA

24. ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGARA IGOTZEKO FASEA

Euskal Ligako kategorian egon daitezkeen leku libreak betetzeko helburuarekin, Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketen Planean ezarritakoaren arabera, aipatutako Igoera Fasea antolatu du, ondorengo arauetara jarraiki

1. PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako maila goreneko kategorietan bigarren sailkatu direnak.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Buelta bakarreko Liga sistema erabiliko da.

Partida guztiak baloi ofizialarekin jokatu behar dira nahitaez, "ASTORE" markakoa dena.

Partida hastean etxeko taldeak gutxienez 5 baloi izan beharko ditu: 2, arbitroarentzat, eta beste 2, kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen taldea zigortuko du Lehiaketako Epaile Bakarrak.

Taldeak, gutxienez, partidua hasi baino ordu erdi lehenago aurkeztu behar dira zelaira, eta denbora tarte berean lizentziak aurkeztu beharko dizkiote epaileari eta kronometratzaileari.

Partida hasi baino hamabost minutu lehenago jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik, kanpoko taldeak beroketa-ariketak egin ditzan.

Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak, gutxienez, jokatzeko moduan dauden sei jokalariez gain, taldearen ordezkari bat ere aurkeztu beharko ditu. Halaber, etxeko taldeek behar bezala identifikatutako eta arbitroaren esanetara dagoen zelaiko ordezkari bat aurkeztu beharko du nahitaez.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

- 2 -

Partiduek 20 minutuko bi zati izango dituzte, kronometratuko dira, eta 10 minutuko atsedena izango dute.

3. DATAK

Partidak maiatzaren 30 eta ekainaren 6 eta 13.

4. JARDUNALDIAK ETA PARTIDEN ORDUTEGIAK

Partiden data, ordua eta jokalekua partida jokatu aurreko asteko ostiraleko 19:00ak baino lehen idatziz jakin beharko ditu Federazio honek. Halaber, partida jokatu aurreko asteazkeneko 22:00ak baino lehen jakinaraziko zaio kanpoko taldeari. Partidak hasteko ordutegiak, tarte hauetan egon beharko dira:

Larunbatetan: 15:45 – 20:00

Igandeetan: 11:00 – 13:00 eta 16:00 – 18:00

Klub guztiek ezarritako partiden ordutegi ofizialak aldatzeko eskumena dute, betiere kanpoko taldea ados badago, eta Areto Futboleko Euskal Batzordeko Idazkaritzari idatziz jakinarazten badiote partida jokatu aurreko asteko ostiraleko 19:00ak baino lehen. Aldaketaren dokumentuan bi klubaren zigilua eta sinadura agertu beharko da.

Aldaketa horrek arbitroengan eragina duenez, zelaiko jabeak diren klubek beste **13 € arbitro bakoitzeko** ordaindu beharko dituzte arbitroen ordainagirian.

Jakinarazpena idatziz egiten ez bada, edo epea kanpo egiten bada, eskatutako ordutegi aldaketari ez zaio baimenik emango.

5. BERDINKETAK

Egon daitezkeen berdinketak EFFren Arautegi Orokorraren arabera ebatziko dira, edo egunen dauden Jokatzeko Arauak.

.../..



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

- 3 -

Partida bakoitza bukatzean, emaitza edozein dela ere, penaltiak jaurtiko dira, **5.derrigorrez**, eta berdinketak jarraitzen badu irabazlea egon arte jaurtitzen jarraituko dira. Emaitza hau kontuan hartuko da sailkapen orokorrean egon daitekeen berdinketa apurtzeko azken aukera gisa.

6. ARBITROAK

Izendatutako arbitroak Lurralde kategoriakoak izan dira, eta zelaiko jabea den taldeak dagokion ordainagiria ordainduko du, zenbatekoa ohizko ligakoa izanik. Arbitroa eta Mahaiko Epailea.

7. DIZIPLINAZKO BATZORDEA

Partida bukatzean, arbitroaren akta Euskal Batzordeari bidaliko zaio, posta urgentearen bidez, posta elektronikoz edo faxez, Epaile Bakarrak bere epaia eman dezan, hala suertatzekotan. **Akta astearteko 18:30ak baino lehen izan beharko du AFEbk.**

Honetaz gain, jakinarazten dugu, isun ekonomikoa ezartzekotan, Areto Futboleko Euskal ligarako zenbatekoak izango direla.

Hala jakinarazten zaie lehiatzen duten klubei, Arabako Futbol Federazioari, Bizkaiko Futbol Federakundeari, Gipuzkoako Areto Futboleko Batzordeari, eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari, jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako.

2010ko maiatzak 18 Bilbon


JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General